

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Organismo Autonomoak

GIZARTE ONGIZATERAKO FORU ERAKUNDEA

756/2020 prozedura laburtuan epatzeko iragarkia

Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen Legearen 49.1 artikuluan xedatutakoa betez, argitara ematen da errekurtsioa jarri dela eta espedientea Gasteizko Administrazioarekiko Auzien 2 zenbakiko Epaitegira bidali dela. Prozedura laburtua 756/2020 da, eta ELA zentral sindikalak eskatuta bideratu da.

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen zerbitzuko langileen lan-baldintzak arautzen dituen uztailaren 24ko 59/2007 Foru Dekretuaren 58.3 artikulua aplikazioa aldi baterako etetea onartzen duen irailaren 22ko 30/2020 Foru Dekretuaren aurka.

Ohartarazten da ezen iragarki honen bidez epatu egiten dela prozeduran interesa duen oro autoetan agertu eta pertsonatu dadin. Horretarako, bederatzi egun izango ditu, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta biharamunetik aurrera kontatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko otsailaren 18a

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen zuzendari-kudeatzailea
JOSÉ FRANCISCO ANTÓN IDRÓQUILIS